

## 70. EUSKAL SOZIOMETROA: OSASUNGINTZA (2019ko ekaina) Prensa oharra

### SARRERA

70. Euskal Soziometro honen gai nagusia osasungintza izan da. Egoera ekonomiko eta politikoarekin lotutako beste gai batzuk ere aztertu dira. Landa lana 2019ko apirilaren 29a eta maiatzaren 10a bitartean egin zen.

### EGOERAREN BALORAZIOA

#### Euskadiko egoeraren balorazioak bilakaera positiboa izan du oso

Euskadiko egoera ekonomikoa ona dela uste dutenen portzentajeak gora egiten jarraitzen du. Biztanleriaren %73k ona edo oso dela uste dute, 2002tik jasotako portzentajetik altuena da hori. Espainiako egoera dezente okerrago baloratu da (soilik %20k uste dute ona edo oso ona dela), baina portzentaje horrek ere goranzko joerari eusten dio aurreko neurtaldiekin alderatuta, nahiz eta kasu honetan balorazio positiboa ez den iritsi krisi aurreko garaitakora. Europarekin alderatuta, EAEko hautemate positiboa batezbestekotik gorakoa da.

Balorazio positibo hori bat dator egoera ekonomiko pertsonalaren balorazioarekin, gehienek positiboki baloratzen dutena. Horrela, %69k uste dute beren egoera ekonomikoa ona edo oso ona dela.

Euskadiko egoera politikoa ere oso positiboki baloratzen da: %72k ona edo oso ona dela irizten diote. 2002. urtetik erregistratutako balorazioetatik nabarmen altuena da balorazio hori.

Herritarren ustez, Euskadiko arazo nagusiak berriz ere lan merkatuarekin lotutakoak dira (%63k aipatu dituzte hiru arazo nagusien artean), nahiz eta beheranzko joerari eusten dioten. Askoz gutxiago aipatu dira ondorengo arazoak: etxebizitza eta etxe gabetzeak (%11), egoera politikoa, politikariak eta gatazka politikoa (%11), immigrazioa (%10), arazo ekonomikoak (%9), zerbitzu publikoen funtzionamendua eta estaldura eta laguntzak (9%), delinkuentzia eta segurtasun falta (%8), osasungintza (%7) eta pentsioak (%7).

Euskadiko zerbitzu publikoen balorazio orokorra ere positiboa da (%91k ontzat edo oso ontzat jo dituzte). Europar Batasunarekin alderatuta, ehuneko hori da altuena; izan ere, bertan % 53k uste dute bakoitzaren zerbitzu publikoak onak edo oso onak direla.

Eusko Jaurlaritzak bere ardurakoak diren arlo ezberdinetan egindako lanaren balorazioak ere bilakaera positiboa izan du azken urteotan. Bilakaera positibo hori Gobernuaren arlo guztietan hauteman da gainera.

### OSASUNGINTZA

#### Norberaren osasunaren autoperzepzio positiboa

Osasuna da zorientasun-sentsazioarekin gehien lotzen den esparruetako bat. Herritarren %74k uste dute osasuna izatea dela zorientasunari gehien laguntzen dioten bi gauzetako bat. Osasunari emandako garrantzia handitu egiten da adinean gora egin ahala.

Euskal herritarrek, oro har, beren osasuna ona dela uste dute (%76 ona edo oso ona), Estatuko batez bestekoaren gainetik (%68) eta Europar Batasuneko batez besteko portzentajetik gora (%70).

#### Oro har, Euskadiko osasungintzaren balorazio positiboa

Herritarren %93k uste dute Euskadin osasungintza ongi edo oso ongi dabilela; eta soilik % 6k uste dute gaizki edo oso gaizki funtzionatzen duela. Balorazioa orain dela 5 urte jasotakoa baino dezente handiagoa da, orduan %88k adierazi zuten osasungintza Euskadin ona edo oso ona zela.

Gainera, Euskadiko osasun zerbitzuak Estatuko beste leku batzuetakoak baino hobekak direla uste dutenen portzentajea geroz eta handiagoa da (hobekak direla ziotenak %49 ziren 1998an eta gaur egun %67).

Herritarrek oso balorazio ona eman diete planteatutako osasun-sistemako aspektu ia guztiei 0tik 10erako eskalan: osasungintzako langileen profesionaltasuna (7,6), gizatasuna tratuan (7,4), instalazioak eta ekipamenduak (7,3), pazienteak nahiago duen hizkuntzara egokitzea (7,3), telefono bidezko kontsulta medikoak (7,3), zerbitzu administratiboen eraginkortasuna (7,1), hitzordua eskatzeko telefono bidezko arreta pertsonaleko sistema (7,1), paziente bakoitzari eskaintzen zaion denbora (6,7) eta herritarrek dituzten osasun-behar guztiekiko arreta (6,4). Salbuespen bakarra da espezialistekin kontsulta izateko eta ebakuntzetarako itxaron zerrendak, 4,9 punturekin; dena den, honetan ere balorazioa apur bat hobetu egin da 2014tik, orduko 4,6tik egungo 4,9.

Arreta-maila ezberdinei buruzko balorazioa ere oso positiboa da: lehen mailako arreta (7,4), ospitale publikoetan ospitalatzea (7,1), espezialistekin egindako kontsultak (7,0) eta larrialdi zerbitzuak (6,5); era berean modu positiboan baloratzen da zerbitzu horien arteko koordinazioa, eta %67k uste dute ona edo oso ona dela. Kasu guztietan, balorazioa Estatuan ematen dena baino positiboagoa da.

Herritarrek zatiturik azaldu dira Eusko Jaurlaritzak osasungintzara bideratutako baliabideen nahikotasunari buruzko iritzia ematean: %51ren ustez behar direnak dira, eta %41en ustez behar direnak baino gutxiago.

## Erabiltzaileen aldetik Osakidetzako zerbitzuen balorazioa ere positiboa da

Azken urtebetean Osakidetzaren zerbitzuak erabili dituztenek zerbitzuen horien balorazioa positiboa egiten dute. Eta oso edo nahikoa pozik agertzen dira osasun arloko profesionalen aldetik jasotako tratuarekin (%82), administrazioko langileen aldetik jasotakoarekin (%81) eta gainerako langileen aldetik jasotakoarekin (%84).

Gainera, familia medikuari dagokionez, gehienek uste dute medikuak aukera eman ziela galderak egiteko edo zituzten kezkak azaltzeko (%88) eta nahi beste parte hartu ahal izan zutela beren osasun arazoari buruzko erabakietan edo tratamenduan (%81). Bestalde, ez zuten irudipenik izan medikuak nahi baino kasu gutxiago egiten zietela ordenagailuan arreta jartzen zutelako (%82) edo itxaron gelan ordu bete baino gehiago itxaron behar izan zutenik artatuak izateko (%82).

Azkenik, internet bidezko Osakidetzako zerbitzuak ere ongi baloratu dituzte erabiltzaileek: Otik 10erako eskalan osasun-karpeta 8,8rekin baloratua izan da eta Internet bidezko hitzordu-eskaera 8,5ekin.

Azkenik, Osakidetzatik jasotako zerbitzuen balorazio orokorra oso positiboa izan da. Eta 10en gaineko 7,6 punturekin baloratu da jasotako zerbitzuen kalitatea.

Osakidetzak hobetzeko dituen gauzen artean artatuak izateko itxaron zerrendak nabarmentzen dira; %62k uste dute hori dela Osakidetzak hobetzeko dituen bi gauzetako bat.

## Osasungintza publikoa vs osasungintza pribatua

Herritarren %16k diote mediku-aseguru pribatua dutela. 2014an baina zertxobait gutxiagok (%21). Mediku-aseguru pribatua dutenen artean, izateko arrazoi nagusiena arretaren azkartasuna da (%48); neurri apalagoan lan arrazoia edo autonomia edo kooperatibista izatea (%27) edo espezialistarengana joan ahal izatea lehen mailako arretatik pasa gabe (%23).

Dena den, herritarren %80k nahiago lukete Osakidetzara joan klinika pribatu batera baino ebakuntza bat behar balute, eta %73k espezialista batekin kontsulta behar balute sistema publikoa aukeratuko lukete.

Gehiengo zabal batek (%87) uste du osasun sistema publikoa zergen bidez bakarrik finantzatu behar litzatekeela, eta %46k uste dute hala izango dela 20 urte barru.

## Osasuna zaintzeko modu berriak

Biztanleen %25ek euren osasunarekin zerikusia duten kontuak interneten kontsultatzen ditu, portzentaje hori %36raino igotzen da 18 eta 29 urte bitartekoaren artean eta %32ra 30-45 urte bitartean dituztenen artean. Kontsulta horiek egiten dituztenen artean % 41ek uste dute aurkitzen duten informazioa oso edo nahikoa egokia dela, % 27k uste dute denetarik dagoela eta % 29k uste dute interneten dagoen informazioa oso edo nahikoa okerra dela.

Medikuntza tradizionalaren aparteko terapietara dagokienez, %31k adierazi dute erabiltzen dituztela (askotan %6k edo batzuetan %25ek). Oro har, biztanleria zatituta agertzen da tratamendu hauek eraginkorrak direla uste dutenen artean (%5ek beti eta %45ek arazoaren arabera) eta hala direla uste ez dutenen artean (%40k inolako kasuan ez).

## Zerbitzu medikuen eta botiken erabilera

Min edo hotzeri arin baten aurrean, biztanleriaren gehiengoak egiten duen lehen gauza sendagai bat bere kabuz hartzea da (%47) edo besterik gabe pasa arte itxarotea (%27). Soilik %15 joaten da medikuaren ohiko kontsultara eta %2k telefono bidezko kontsulta egiten du medikuarekin. %8k produktu naturalen bat hartzen dute.

Euskadin botiken kontsumoa Europar Batasuneko baxuenetakoa da. Hots, inkesta egin aurreko bi asteetan Euskadiko biztanleen %39k medikuak agindutako botikaren bat hartu zuten, eta %18k medikuak gomendatu gabekoa; Europan %49 eta %35 dira hartzen dituztenak, hurrenez hurren.

Dena den, nahikoa zabaldua dago mediku-zerbitzuak eta botikak neurritz kanpo erabiltzen direnaren pertzepzioa: erdiak uste dute jendea behar baino gehiago joaten dela medikuarenera (%50) eta gehiengoak behar baino botika gehiago hartzen direla (%62).

Bai errezeta elektronikoen sistema zein botiken kopagoa ondo baloratuak dira (%97k eta %53k ondo edo oso ondo baloratzen dituzte, hurrenez hurren). Bi sistema horiek egun hobeto baloratzen dira 2014ean baino.

## Prebentziorako eta detekzio goiztiarrerako programak

Osakidetzaren prebentziorako eta detekzio goiztiarrerako programak nahikoa ezagunak dira: herritarren %89k ezagutzen dute titietako minbizia goiz detektatzeko programa, %83k ondesteko minbizia detektatzeko, %70ek jaioberriei egiten zaien orpoaren proba eta %66k haurren hortzak zaintzeko programa. Apur bat gutxiago ezagutzen dira down sindromea eta bestelako anomalia kromosomikoak detektatzeko programa (%55) eta umetoki-lepoko minbizia detektatzeko (%42).

Herritarren %96 ados daude Osakidetzak bere baliabideen zati bat programa horietarako erabiltzearekin.

## Medikuen eta gaixoen eskubideak

Gehienek uste dute medikuek ez luketela eskubiderik izan behar tratamendu edo ebakuntzaren bat egiteari uko egiteko euren sinesmen pertsonal edo erlijiosoen kontra doalako (%61); soilik %27k uste dute eskubide hori legez onartua izan beharko luketela.

Gainera, iritzia banatuago badago ere, 12 edo 13 urtetik beherakoen gaixotasun larrien aurrean, euren bizitza arriskuan dagoenean, eta gurasoek erabakiko balute gaixotasuna arindu dezakeen tratamendua ez ematea adintxikikoari, gehienek uste dute medikuen iritzia dela errespetatu behar dena (%46), %23k uste dute gurasoena errespetatu behar dela eta %21k ez daki zer erantzun galdera horri.

Azkenik, gehiengo garbi batek uste du sendaezina den gaixotasuna duten gaixoek legez eskubidea izan beharko luketela beren bizia bukatzeko hala erabakitzen dutenean (%69 ziur eta %14k uste dute baietz, baina zalantza batzuekin). Gainera, %85ek uste dute eutanasia legez arautu beharko litzatekeela (%79 ziur dago eta %9k uste dute baietz baina zalantza batzuekin).

## JARRERA ETA BALIO POLITIKOAK

### Iñigo Urkullu Lehendakaria da berriz ere hobekien baloratutako buruzagia

EAJ da berriz ere begikotasun handiena sortarazten duen alderdia (5,2 puntu 0tik 10erako eskalan); atzetik datoz Elkarrekin Podemos (4,2), EHBildu eta PSE-EE (4,1 bi kasuetan). Ciudadanos (1,7) eta PP (1,6) azken lekuetan mantentzen dira.

Buruzagi politikoen balorazioei dagokionez, Iñigo Urkullu Lehendakariak (5,9) eta Andoni Ortuzarrek (5,2) soilik lortzen dute 5 puntutik gorako puntuazioa 0tik 10erako eskalan. Atzetik doaz, Lander Martínez (4,5), Arnaldo Otegi (4,4), Idoia Mendia (4,3), eta azkenik, Alfonso Alonso (2,0).

Independentziari buruzko iritziari dagokionez, herritarren %34 kontra azaldu dira, %29 alde edo kontra leudeke egoeraren arabera eta %23 alde daude. %14ek ez dute erantzun.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 2.142 lagunek osatua da. Elkarrizketak aurrez-aurre egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa  $\pm 2,2$ koa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako,  $p=q=0,5$  izanik. Informazio bilketa 2019ko apirilaren 29a eta maiatzaren 10a bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

[http://www.euskadi.eus/ikerketa\\_soziologikoak](http://www.euskadi.eus/ikerketa_soziologikoak)

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainak 27